



EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 17koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2017-2018ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpen-proposamena, hautaketa-batzordeak aurkeztuta, ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bitartez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), 2016-2017ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2017ko ekainaren 28ko Aginduaren III. Eranskinaren 11. Artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2017-2018ko ikasturtean, etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak; II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak; eta III. eranskinean zerrendatzen dira, lehentasun-ordenaren arabera, ordezkoen zerrenda osatzen duten eskaerak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera giteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 17a.

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA/
LA DIRECTORA DE POLÍTICA Y COORDINACIÓN UNIVERSITARIA**

Miren Artaraz Miñón